

# Gabon janariak folklorean

Gabon zelebratzeko janari bereziak izan ohi dira, nonnahi. Abendu hilaren azken parteko giroari jarraiki eta kanta zaharren laguntzarekin, urte-aro honetako gastronomia aditzera emango dugu, ugari bezin aberatsa dugun folklore zati baten bidez.

Gai hau ezta lehen aldiz ikutzen dena, ezta guttiagorik ere, Antonio Arrue naro jarduna da hontaz, bereziki EGAN aldizkariko «Jan-edanak» sailean. 1956ko azken zenbakian. Gabon janariari buruz soilki ari zelarik *Archipreste de Hita*-k «*Libro del Buen Amor*»'en (1389) Bermeoko bisiguak goraiatzatzen zituela gogorazi zigun, eta bisigua, Euskal-Herriko Gabonetako janarietan fiñenetakoa dugu, noski.

Izan ere, jakien berezitasuna eta ugaritasuna elkarrekin ditugu egun hauetan. «Natibitate, ase ta bate», esaten da gure inguruetan. Baina goazen kanta zaharren arlora.

Euskal-Herrian zaharrik bada, Olentzarori buruzkoak zaharrene-takoak ditugu. Kristautzaren aurretiko jentilen garaian ditu bere sustraiak.

*Horra, horra! gure Olentzaro,  
pipa hortzian dula ixerita dago.  
Kapoiak baditu arraultzatxoekin  
gabean merendatzeko sagardoarekin.*

«Orixe»'ren *Euskaldunak* duen parterik hoberenatakoa Olentzarori eskaintzen dion kapitulua du.

Olentzaroren ase ezinak Grezia zaharrako Bako-ren irudi edo jainkokiaren antza du:

*Olentzaro jaun ordia,  
buruz ederki jantzia:  
edan batean ustu diguk  
sei arrobako zagia.*

Beraz, ez harritu, mendiz-mendi edo kalez-kale doan taldearen doinu hotsetan holakorik aditzean:

*Olentzaro guria  
ezin dugu ase,  
bakarrik jan dizkigu  
hamar zerri gazte,  
saieski ta solomo,  
makiña bat este...  
Jesus jaio da eta  
kontsola zaitzte.*

Denboaren joanez, siniskera zaharrek, erlijio berriari lekua utziaz joan ziren. Baina ohitura zaharrak euren lorratzak folklorean utzi zizkiguten; batez ere, hain zuzen, Ekainean eta Eguberrietan, eguzkia goren eta behearen aurkitzen den garaietan. Igazko Eguberrietan eta aurtengo Ekainean egin nituen artikuluetan nahikoa argi utzi nuen bezala (Ikusi, «Hoja del Lunes», 20-XII-1971, 16-VI-1972 eta 25-VI-1973, 3.orr.).

Zer dira ordea Gabonetako janari bereziak? Eskualde guzietan ez dira zeharo berdinak, noski. Bizkaiko itsas-hegalean, Eusebio M.<sup>a</sup> Azkuek joan zen mendearen erdi-aldera idatzitako *Parnasorako bidea* liburuaren 91. orrialdean dakarrenez, «Gabon afari bat» izeneko bertsoetan: *orio-azea, lebatza, makallao-saltzea, besigu-erria* eta *intxaur-saltsa*. Edaritzat: *txakolina, ardao* («ezta euskaldunik egin deutsanik Erriolari biraorik», dio gainera), *kopea bete beterik kafeari botata*, eta *beste kopa bat aparte*.

Bizkaiko lehorraldean ere antzera izan da. Afalondoko edaritzat, Gipuzkoako mugan eta Durango aldian, pattarra aurretik aranekin gertatua hartu izan da. Nafarroa parteko «patxaran» (*pattar-aran* bera edo antzerakoa). Inoiz, aranen ordez, ginda-gereizekin ere egiten da. Gure gurasoentzat (nereentzat behinik-pehin) ezta izan Eguberririk orio-aza, marraskillu (= karakol), legatz edo bisigu eta intxaur-saltsa eta aran-pattarrrik gabekorik.

Aipatu dudan eskualde honetakoa dugu honako kanta hau:

*Gabon-gabeen ohituten dogu  
guztiok afari ona:  
besigu, lebatz, makailu-saltsa,  
bakotxak berak ahal dauna.  
Gero txurrun plin-plan,  
ardau ta païttarra,  
katuak hartuta  
zabu-zabuka.*

Durango aldeko ezpata-dantzaren soinuan ere bada Gabon janariaren kanta bat:

*Aita Juaniko, seme Periko,  
zer dogu aparitako?  
Orio-aza gozo-gozoa  
arto beroaz jateko.  
Kazuelatxoan intxaur-saltsea  
txarra morkoan txunpletin;  
eragin eta beti eragin,  
atsoak bauke zeregin.*

Gabon egunez kantari taldeak etxez-etxe eskean ibiltzen direnean ere, era berean, janariak dirua bera baino estimagarriago agertzen dituzte. Adibidez, «Albako gultzurrunak» izenez hasten den kantaren honako bertso hauetan bezala:

*Kantuak utzi digu  
lehor eztarria,  
betor etxeko-andre  
orain edaria.  
Hotz dago edateko  
sagardo mikatza,  
nahiago dugu beraz  
nafar-ardo beltza.  
Arkumerik ez bada  
betor oilaskoa,*

*dozena arraultzakin  
bada solomoa  
ta besterik ezean  
hamar durokoa.*

Familiak elkaturik zelebratzea da Gabonen berezitasun bat. Azkuek Otxandion jaso zuen «Ator, ator, mutil etxera» kantak bere deira aditzera ematen duen bezala. Kanta honek badu holako xart-mengarritasun ezti bat, lehen Otxandion bakarrik ezagutzen zena. Azkueri esker, urte guttiren buruan Euskal-Herri osora zabaldu da. *Cancionero popular vasco*-ren II. tomoaren 155 orrialdean dator, eta bertako oharretan agertzen denez, letra ikutua dago; ez herriak kantatzen zuen eran. Gure aitona Sebastian Ortiz de Zarate zana (ni sortu baino lehen hila zen) otxandiarra zen, eta gure amari magnetofonuz jaso ahal izan ditudan kanta zaharretan honako hau ere bada, aitonagandik ikasia zuen bezala. Beraz, herriak kantatzen zuen eran. Hau da:

*Ator, ator, mutil, mutil etxera,  
gaztaina ximelak jatera,  
Gabon gaba zelebratzeko  
aitaren ta amaren onduan.  
Ikusiko dok aita barrezka  
ama be guztiz kontentuz.  
Eragiok mutil aurreko danbolin horri  
gaztainak erre artean,  
gaztainak erre artean,  
xipli, xapla, baun!  
Gabon gabau pasau diegun kontentuz.*

Euskal folklorean Gabonak toki zabala dute, lehenaren era askotako aztarnak aurkitu genezazke eta garai bateko janarien berri ugari ere bada.

Mundu guzian ospatzen diren Gabonetan, irakurleei zorionak opa dizkiet eta gauerdi aldera, Aramaion bezala esan dezatela:

*Dringilin dron, gaur Gabon,  
sabela betea daukat eta  
besteak hor-konpon!*

JUAN SAN MARTIN.